



**IRAKASLEEN HASIERAKO EBALUAKETAREN
EMAITZAK**

2015-2016. ikasturtea

(Trintxerpe eta Eibar)

Galtzagorri Elkarte
2016ko abendua



SARRERA

- Txosten honetan Bularretik Mintzora egitasmoaren irakasleen hasierako galdekizunen emaitzak aurkezten dira.
- Ebaluazio hau 2015-2016. ikasturteko lehen hiruhilekoan egin da Trintxerpe eta Eibarreko bi ikastetxe hauetan:
 - **Trintxerpe**: Karmengo Ama Herri Ikastetxea (4 galdekizun)
 - **Eibar**: San Andres Herri Ikastetxea (14 galdekizun)
- Galdekizunak eskolaurreko irakasle guztien artean banatu dira: **14 galdekizun**. Horietatik, **14k, guztiek erantzun** dute, beraz, **% 100ak**.

HASIERAKO GALDEKIZUNAREN HELBURUA

- Irakasleek haur literaturarekiko duten jarrera, ohiturak eta ezaguera maila azalera da.
- Hasierako galdekizunarekin aipaturiko gaietan “oinarrizko abiapuntua” identifikatzen da, gerora, egitasmoaren eraginkortasuna aztertu ahal izateko.



METODOLOGIA

- Hasierako egoera ebaluatzeko lehenago erabiltzen zen galdekizun luze bat moldatu eta laburtu da. **Aldagai** hauek kontuan hartu dira:
 - 1. Irakurketarekiko jarrerak**
 - 1.1. Irakaslearen irakurzaletasun maila
 - 2. Haur Literaturako baliabideen ezagutza**
 - 2.1. Haur Literaturari buruzko formazio / informazio maila
 - 3. Haur Literaturaren ezarpen sistematikoa eskola curriculumean**
 - 3.1. Ahozko jarduera literarioa sistematikoki egitea
 - 3.2. Jarduera mota
 - 4. Narraziorako baldintzak**
 - 4.1. Kontakizunerako estrategiak
 - 4.2. Inguruko baldintzen kontrola
 - 5. Eskolako Haur Literatura baliabideak**
 - 6. Harremana Udal Liburutegiarekin**
- Galdekizun moldatuak **9 galdera** ditu (denak erantzun itxiekin).
- Galdekizunak aipatutako **2 ikastetxeetan** banatu dira, instrukzio orriarekin batera. Epe bat eman ondoren jaso dira, datuak bildu eta estatistikoki tratatuak izateko. Txosten honetan azaltzen dira prozesu horren emaitzak.



TXOSTENA


**IRAKASLEEN HASIERAKO EBALUAKETAREN
EMAITZAK**

2015-2016. ikasturtea

(Trintxerpe eta Eibar)

1. IRAKURKETAREKIKO JARRERAK


1.1. Irakaslearen irakurzaletasun maila



- **% 56ak** dio Haur Literatura **asko** atsegin duela
- **% 44ak** dio **nahikoa** atsegin duela


Irakasleen artean irakurzaletasun maila handia da.

2. HAUR LITERATURAKO BALIABIDEEN EZAGUTZA



- **% 61ak nahiko** ezagutzen ditu Haur Literaturako baliabideak
- **% 39ak gutxi** ezagutzen ditu baliabideak
- Ez dago inor **asko** ezagutzen dituela erantzun duenik


2.1. Haur Literaturari buruzko formazio / informazio maila



- **% 72ak** dio formazio edota informazio **gutxi** duela
- **% 17ak** dio **bat ere ez** duela
- **% 11k** dio informazio **nahikoa** duela


3. HAUR LITERATURAREN EZARPEN SISTEMATIKOA ESKOLA CURRÍCULUMEAN

3.1. Ahozko jarduera literarioa sistematikoki egitea



- **% 83ak** ahozko jarduerak sistematikoki egiten ditu
- **% 17ak** ez ditu ahozko jarduerak sistematikoki egiten

3.2. Jarduera mota




- **% 100ak** sistematikoki abestiak kantatzen ditu eta ipuinak kontatzen ditu irudiak erabiliz
- **% 89ak** sistematikoki ipuinaren irudiak erakutsi eta azaltzen ditu
- **% 33ak** sistematikoki errima jokoak egiten ditu
- **% 17ak** ipuinak ahoz kontatzen ditu, irudirik erabili gabe
- **% 28ak** sistematikoki haur poesia erreztatzen du

Irakasleek sistematikoki egiten dituzten jarduera literarioek abestiak kantatzearekin eta ipuinaren irudiak erabiltzearekin dute zerikusia batez ere. Aldiz, ahozkotasanarekin zerikusi zuzena duten jarduera literarioak oso urriak dira

4. NARRAZIORAKO BALDINTZAK


4.1. Kontakizunerako estrategiak



- **% 94ak** keinuak erabiltzen ditu kontatzerakoan
- **% 89ak** ipuinaren irudiak erakutsi eta komentatzen ditu
- **% 17ak** ipuinaren testua irakurtzen ditu
- **% 6ak** ipuina ozenki irakurtzen du, erakutsi gabe

Nabarmena da ikusteko baliabideak ahozko kontaktak baino gehiago erabiltzen dituztela irakasleek


4.2. Inguruko baldintzen kontrola



- **% 67ak** bere egoera fisikoa eta emozionala (erlaxatua eta motibatua egotea) kontrolatzen du
- **% 83ak** isiltasuna egotea kontrolatzen du
- **% 56ak** haurren arreta erabatekoa izatea


Jarduera literarioan, irakasleak gehiago arduratzen dira inguruko isiltasunaz beraien egoera propioaz edo haurren arreta kontrolatzeaz baino

5. ESKOLAKO HAUR LITERATURA BALIABIDEAK



- **Eguno ipuinak (%94a)**, **irudidun albumak (%83a)**, **bideoak, DVDak, .. (%83a)** eta **ipuin tradizionalak (% 67a)** dira baliabide ugarienak.
- **Haur poesia (%17a)** eta **aho korapiloak eta hitz jokoak (%33a)** ordea baliabide urrienak dira.

6. HARREMANA UDAL LIBURUTEGIAREKIN



- **% 50ak** dio inoiz ez dela udal liburutegira joaten
- **% 28ak** dio urtean hiruzpalau aldiz joaten dela
- **% 22ak** dio hilean behin joaten dela udal liburutegira

Irakasleen erdiak dio ez dela udal liburutegira joaten. Joaten direnak ere, oso noizbehinka doaz